



Eskola txikietako VI. Topaketaren balorazioa

(2012ko ekainaren 27an, Lasarteko Berritzegunean)

Aurtengo Eskola Txikietako VI. Topaketa honetan ere parte hartzea zabala izan da (125 pertsona, irakasle eta gurasoen artean).

Egitaraua jarraituz, lehen partean denok elkarrekin egon gara eta PROIEKTUAK gaiaren inguruan bi proiektu aurkeztu dira:

- Adunako eskolan Mikel Sukunza irakasleak LHko ikasle helduenekin egindakoa: "Eskolako maketa"
- Arrankudiagako eskolako Nekane Otsoak beren eskolan aurrera eramán duten proiektua: "Zinea" (hau ere LHko 3. zikloko ikasleek egin)

Ondoren denon arteko elkarrizketa egon da. (Elkarrizketa bideratu nahian gidoi bat banatu da partaideen artean).

Atsedena ondoren 30 pertsonako taldeetan banaturik gela ezberdinetan bideo emanaldiak ikusi eta ondoren (beste gidoi baten laguntzaz) taldeetan elkarrizketa/eztabaidak bultzatu dira.

Hemen bideo horiek ikusteko helbideak:

- <http://vimeo.com/26000006> Paradigma de la educacion- Ken Robinson
- http://www.youtube.com/results?search_query=maestros+aprendiendo+juntos&aq=f "Maestros aprendiendo juntos"
- mal de escuela - Daniel Pennac:
http://www.youtube.com/embed/WV_X-n5c5II?rel=0
- Toshino Kanamori: www.elblogalternativo.com/2008/12/11/toshiro-kanamori-y-la-pedagogia-para-ser-feliz-y-pensar-en-los-demas-otra-educacion-es-posible/

Ordu eta erdiko saioaren ostean, denok berriro Areto Nagusian elkartu eta talde txikietan hitz egin denaren laburpen bat azaldu da konklusio modura.

Goizari bukaera emateko koordinatzaile berriaren aurkezpena egin da: Mikel Goñi irakaslea izango da datorren urteetako eskola txikietako koordinatzailea.

Topaketa bukatu ondoren, batzuk (40 pertsona, alegia) Zubietako Araeta jatetxera joan gara elkarrekin bazkaltzera (taldeentzako prestatzen duten eguneko menu merkea lortu dugu).

Hurrengo Topaketa, VII. alegia, Durangon tokatuko da bi ikasturte barru.